

Eibarko Udalak errekontza eta motore termikoen inguruko tailer teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko, esperimentatzen ikasteko.

**Tramitatzailea:** Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza

**Hartzaileak:** Eibarren erroldatutako LH 5. eta 6. mailakoentzat eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat

**Adinak:** 10-14 urte bitartekoak

**Tailerraren prezioa:** Doan

**Nork emango du:** ELHUYAR

**Non:** Indianokua Gaztelekua

**Datak:** Irailak 2, 3, 4, 5 eta 6

**Ordutegiak:**

09:30etatik 11:30etara

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Eskaera egiteko epea:** uztailaren 17tik abuztuaren 9ra

**Ikasle kopurua:** gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 15 ikasle.

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

“**IKASTAROAK ETA TAILERRAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura) eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

**Kudeaketa arauak:**

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), **abuztuaren 26an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Udaletxean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **abuztuaren 26an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean ([www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)), egingo da **abuztuaren 26an, 12:00etatik** aurrera.

Informazio gehiago: 943 708 451 telefonoan